

Rubén Blades, Gary Clark Jr., Mikel Erentxun, Izaro eta Morgan izango dira Heineken Agertoki Berdeko programazio koloretsuaren buru

Heineken Agertoki Berdeko programazioak, 53. Heineken Jazzaldiaren barruan, musika-abaniko zabala eskaintzen du, Zurriolako hondartzan kokatutako agertoki jendetsu honetan ohikoa den bezala.

Rubén Blades, saltsaren erregeetako bat, Roberto Delgadok zuzendutako orkestra panamarrarekin dator eta Jazzaldiaren lehen jardunaldiko izarra izango da, uztailaren 25ean, iluntzeko 9etan. Egun horretako gauerdiko kontzertua New Yorkeko Too Many Zooz hiruko moderno eta apurtzailearen kargura izango da. Esan behar da zuzeneko lehergarria dutela eta jarraitzaile asko ari direla biltzen.

Gary Clark Jr. dugu momentuko gitarrista: gaztetasunaren ausardia uztartzen du blues, rock eta souleko hainbat maisuren obraren ezagutzarekin, eta intentsitate ikaragarriko erritmoa lortzen du. Uztailaren 26ko gauerdian joko du. Aurretik, 21:00etan, Izaro euskal abeslaria izango dugu, igoera meteorikoa izaten ari den artista, gero eta entzule gehiagok estimatzen baitu haren sentsibiltate ikaragarria.

Mikel Erentxun gaztelaniaz abestutako pop-rockeko izen funtsezkoetakoa da. Eragin handia izan du Donostia inguruko musikariengan, hala bakarka daraman ibilbidean, nola Duncan Dhuko etapan. Gainera, nazioartean ere karrera luzea darama. Erentxunen kontzertua 27an izango da, gauerdiz. Heineken Agertoki Berdeko programazioa, egun horretan, gaueko 9etan Amateur taldeak emango duen kontzertuarekin osatuko da. Donostiako talde honek bere aurreko proiektuaren –La Buena Vida– espiritu poperoa berreskuratzen du.

Agertoki Berdearen azken egunean ere, uztailaren 28an, galako programa izango dugu. 21:00etan, Morgan, azken urte honetan Espainiako talde

errebelazio gisa har daitekeena. Eta gauerdian, Anna Calvi, gora datorren talentu ukaezina, zeinari "PJ Harvey berria" deitzen baitiote.

Agertoki Berdeko emanaldi guztiak doan dira.

Rubén Blades

Rubén Blades (ahotsa), **Roberto Delgado** (zuzendaritza, musika-moldaketak, baxua), **Juan Berna** (pianoa), **Luis Enrique Becerra** (teklatuak), **Juan Carlos "Wichy" López** (tronpeta), **Alejandro Castillo** (tronpeta), **Francisco Delvecchio** (tronboia), **Idígoras Bethancourt** (tronboia), **Avenicio Núñez** (tronboia), **Carlos Ubarte** (saxoa), **Marco Barraza** (kongak), **Carlos Pérez-Bidó** (tinbalak), **Raúl Rivera** (bongoak, perkusioa), **Ademir Berrocal** (bateria)

Rubén Blades panamarra Latinoamerikako bandera musikaletako bat da. Saltsa fenomeno unibertsala bihurtzen lagundu duten hainbat abestiren egilea dugu *Siembra* (1978) album apurtzailea argitaratu zuenetik, Willie Colónekin batera. Nork ez du abestu eta/edo dantzatu noizbait *Pedro Navaja*, *Ligia Elena*, *María Lionza* edo *Buscando América*. Zinema eta telebistako aktore ere bada eta konta ezin ahala sari jaso ditu bere kontzertuengatik eta argitaratu duen disko andanagatik. Rubén Bladesekin batera Roberto Delgadoren orkestrak joko du, saltsan espezializatutako panamar big band bikain bat, zeinarekin ezin hobeto elkar hartzen baitu, 2010ean elkarrekin jotzen hasi zirenetik.

Too Many Zooz

Leo Pellegrino (saxo baritonoa), **Matt Doe** (tronpeta), **David "King Of Sludge" Parks** (perkusioa)

New Yorkeko hiruko honek "brasshouse" estiloa lantzen du (definizioa beraiena da), hau da, soul, funk eta jazz nahasketa bat. 2013an jaio zen taldea, Pellegrino eta Doe New Yorkeko Metroan beren errepertorioa erakusten hasi zirenean, Union

53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Square-n, bereziki; kalean zihoan jendeak haien emanaldiak grabatzen zituen eta, sarera igo ostean, biral bihurtzen ziren. Hala egin ziren ezagun. Istorio berbera du (eta musika oso antzekoa) Lucky Chops taldeak, hain zuzen ere, Pellegrinok sortzen lagundu ondoren, 2017ko Heineken Jazzaldian entzun genuenak. Pellegrino lankide izan zen Beyoncéren *Lemonade* (2016) diskoan eta hirurek batera lau EP eta LP bat argitaratu dituzte, azkeneko hori *Subway Gawdz* izenburukoa.

Izaro

Izaro Andrés (ahotsa, gitarra), **Iker Lauroba** (gitarra), **Julen Barandiaran** (baxua), **Oriol Flores** (bateria), **Garazi Esnaola** (teklatuak)

Izaroren musika barnekoi eta sentsibilitate sakonekoak erremediorik gabe hunkitzen du entzulea. Komunikabideak, publikoak eta lurraldeak haren miresleen familia handira gehituz doaz, etengabe. Mallabiko kantautoreak (1993) bigarren disko dizdizari bat egin du, *Eason*, hitz batean esanda, zoragarria. *Er(h)ori*-ren pop askatzaile eta indartsuak, *Zure ezpainen itsasoan* paregabearen edertasunak, *La felicidad*-en Amerika Latinora egiten duen bidaiak, *Devil* eta *Pick Up*-en bere iragan kaliforniarrera eta bluesera egiten duen sarraldiak edo *Zuri begira* haur-kantak... guztiek begirada eta ñabardura anitzez jositako disko poliedrikoa eta konplexurik gabea eratzen dute, Izaroren mundua bezala.

Gary Clark Jr.

34 urterekin, Gary Clark Jr. texastarra momentuko gitarrista da, blues, rock eta souleko oinarriak hip hopeko elementuekin fusionatzeari esker. 26 urte zituela 2010eko Crossroads Guitar Festivaleko izarretako bat izan zen, B.B. King, Buddy Guy, Jeff Beck, Eric Clapton eta Sheryl Crowrekin kartela partekatzen zuela. Hiru lehenengoekin eta Mick Jagger-ekin batera, hautatuetako bat izan zen, 2012an,

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Etxe Zurian eman zen *Red, White and Blues* izenburuko kontzertu handirako, garai hartan AEBetako lehendakari zen Obama bertan zela. The Beatles taldearen *Come Together* piezari egin dion bertsioa bonba bat izan da eta bi album sartu ditu Billboarden Top 10 zerrendan.

Amateur

Mikel Aguirre (ahotsa, gitarra akustikoa, ahoko soinua), **Cheli Lanzagorta** (pianoa), **Iñaki de Lucas** (bateria), **Fernando Neira** (baxua, kontrabaxua), **Paul San Martín** (Hammond organoa, ahotsa), **Joseba Irazoki** (gitarra elektrikoa, slidea, ahotsa)

Mikel Aguirre, Cheli Lanzagorta eta Iñaki de Lucasen proiektu musikal berria da Amateur. Buena Vida desagertutako donostiar taldeko kideak ziren hirurak eta, aldi berean, Donostiako sormen musikalaren bilakaeran —eta pop musikarenean, oro har— azken hiru edo lau hamarraldiotan aktiboki parte hartu duten eta, komunikabideetan oihartzun handia izateaz gainera, publikoaren eta kritikaren aldetik harrera bikaina izan duten zenbait taldetako kide eta/edo kolaboratzaile izan dira. Aurreko formazioaren planteamenduetatik abiatu —“vintage” kutsuko konposizio finak, klasikoei keinu egiten dietenak, orkestra-moldaketak eta gaztelaniazko testuak—, Amateur-ek ñabardura eta atmosfera berriak dakarzkie taldearen lehen diskoa (*Debut!*) osatuko duten abestiei. Disko honen elaborazio delikatu eta zehatzean, Donostiako beste musikari ezagun batzuek ere hartu dute parte —Diego Vasallo, Irantzu Valencia, Jaime Stinus edo Joserra Senperena, gehiagoren artean—, eta diskoa zuzenean aurkezteko orduan, honako hauek izango dituzte lagun agertokian: Fernando Neira baxuarekin, Paul San Martín Hammond organoan eta Joseba Irazoki gitarrarekin.

Mikel Erentxun

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Mikel Erentxun (gitarra, ahotsa), **Karlos Arancegi** (bateria), **Fernando Macaya** (baxua), **Marina Iniesta** (gitarra)

Bere azken diskoarekin, *El hombre sin sombra*, Mikel Erentxunek beste behin ere erakusten du zergatik okupatzen duen urrezko tokia espainiar pop-rockaren historian. Erentxun guztia izan da eta da oraindik: beti gogoratuko diren abestien egile, belaunaldi berrien maisu, duela hogeita hamar urtetik hona mundu osoan zeharreko hainbat biratako protagonista nekaezin, Duncan Dhu mitikoaren sortzaile... *El hombre sin sombra* diskoa, iaz, pop-rockeko album onenaren Grammy Latinoetarako izendatua izan zen, aurreko urtean *Corazones* izan zen bezala. Horrek erakusten du Mikel Erentxunen musika oraindik indar betean dagoela.

Morgan

Carolina de Juan (pianoa, ahotsa), **Francisco López** (gitarra, koruak), **Ekain Elorza** (bateria), **Alejandro Ovejero** (baxua, koruak), **David Schulthess** (teklatuak, koruak)

Morgan da azken urte honetako talde errebelazioa. 2017an ia ehun kontzertu eman zituzten eta baita sarrerak agortu ere Madrilgo Ochoymedio edo Joy Eslava bezalako aretoetan, edota Bartzelona, Bilbo edo Coruña beste hainbatetan. Abeslariak ahots miragarria du, soinu soul sakon batez hornitzen du taldea, non Amy Winehouse, Aretha Franklin, Etta James, Cat Power edo Fiona Appleren erreferentziak aurki daitezkeen. 2018k martxoan argitaratu dute bigarren diskoa, *Air*, zeinak zedarrri argia markatuko baitu bandaren ibilbidean.

Anna Calvi

Anna Calvi (ahotsa, gitarra), **Mally Harpaz** (multi instrument station, perkusioa), **Aleix Thomas** (bateria)

Merkatuan single bakar bat badu ere —*Jezebel*, 1950eko hamarraldian Édith Piafek ezagun egin zuen abesti bat— Londresen jaiotako kantari honek Brian Enoren goraipamenak jaso ditu jada (elkarrizketa batean esan zuen "Patti Smith-

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

ez geroztik izan den gauzarik handiena" dela; hitz lodiak, inondik ere). BBCK 2011ko erreferentzien artean kokatu zuen. Aurrez, Elvis Presley, David Bowie, Leonard Cohen eta TV On The Radioren hainbat bertsio igo zituen YouTubera. Zarata handia atera zuten bertsio haiek eta "PJ Harvey berria" deitu zioten Anna Calviri. Haren bigarren diskoak, *One Breath* (2013), hainbat postu irabazi zituen Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako talentu berrien zerrendetan. Geroztik bi EP argitaratu ditu, *Strange Weather* (2014) eta *Live For Burberry* (2018).

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura